ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2018ko urriaren 26a, ostirala • 123 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

# OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 610/2018 Foru Agindua, urriaren 18koa. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 30eko 847/2013 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 136 eredua, "Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Loteria eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga berezia. Autolikidazioa"**

Foru agindu honen bidez, foru agindu honen eranskinean jasotako ereduak ordeztu egingo du abenduaren 30eko 847/2013 Foru Aginduari erantsitako 136 eredua, hura egokitzearren uztailaren 17ko 1/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak karga berezitik salbuetsitako zenbatekoan egindako aldaketetara.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

**Artikulu bakarra. Aldatzea abenduaren 30eko 847/2013 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 136 eredua, "Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Loteria eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga berezia. Autolikidazioa"**

Bat. 2. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"**2. artikulua. 136 eredua aurkeztu beharra dutenak**

Zergadunak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergakoak eta establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergakoak, behartuta daude 136 eredua aurkeztera eta dagokien karga berezia autolikidatu eta ordaintzera, baldin eta irabazi badituzte Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 17ko 1/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak aipatzen dituen sariak, salbuetsitako zenbatekotik gorakoak, nola eta aurretik ez duten egin dagokien atxikipena edo konturako sarrera aipatutako 1/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak ezartzen duen moduan."

Bi. Foru agindu honen eranskineko ereduak ordeztuko du abenduaren 30eko 847/2013 Aginduaren eranskinean jasotako 136 eredua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ez egoiliarren errentaren gaineko zerga. Loteria eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga berezia. Autolikidazioa.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra eta 2018ko hirugarren hiruhilekoari dagozkion autolikidazioetarako aplikatuko da lehenengo aldiz.

Gasteiz, 2018ko urriaren 18a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*
*JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ*

*Ogasun zuzendaria*
*TERESA VIGURI MARTÍNEZ*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

**Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga**

## Loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga berezia

Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas e Impuesto sobre la Renta de no Residentes

## Gravamen Especial sobre los Premios de determinadas Loterías y Apuestas

# 136

**AUTOLIKIDAZIOA** ■ AUTOLIQUIDACIÓN

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila**

**Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

### AITORTZAILEA / DECLARANTE

**IDENTIFIKATZEKO ETIKETA JARTZEKO GUNEA**
ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA

**SORTZAPENA** / DEVENGO

**Kobruaren eguna** ■ Fecha de cobro

**Ekitaldia** Ejercicio

**Zergaldia** Período

**Aitorpenaren identifikazio zenbakia**
N.º identificativo de la declaración

| **IFZ** ■ NIF | **Deiturak eta izena edo sozietatearen izena** ■ Apellidos y nombre o razón social | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Helbidea (Kalea/plaza/Hirib.)** Domicilio (Calle/Plaza/Avda.) | **Bide publikoaren izena** ■ Nombre de la vía pública | **Zenb.** ■ Nº | **Esk.** ■ Esc. | **Sol.** ■ Piso | **Telef.** ■ Telef. |

| **P.K.** ■ C.P. | **Herria** ■ Municipio | **Probintzia/Herrialdea** ■ Provincia/País |
|---|---|---|
| | | |

### SARITUTAKO LOTERIA EDO APUSTU / LOTERIA O APUESTA PREMIADA

**Loteria edo apustua antolatzen duen erakundea edo entitatea** ■ Organismo o entidad organizadora de la lotería o apuesta

| **Izena edo sozietatearen izena** ■ Denominación o razón social | **Herrialdea** ■ País | **Herri Kodea** ■ Código País |
|---|---|---|
| | | |

**Loteria edo apustuaren identifikazioa** ■ Identificación de la lotería o apuesta

| **Izena** ■ Denominación | **Loteriaren zozketa edo apustua egin den eguna** Fecha celebración | **Prezio unitarioa** ■ Precio unitario |
|---|---|---|
| | | |

### LIKIDAZIOA / LIQUIDACIÓN

| | | |
|---|---|---|
| **Saritutako txartel, kupoi edo apustuak jasotako sariaren zenbatekoa (edo merkatu-balioa, gauzazko saria bada)**<br>Importe del premio obtenido por el boleto,cupón o apuesta premiado (o valor de mercado si el premio es en especie) | **01** | |
| **Aitortzaileari banaka dagokion sariaren zenbatekoa edo balioa**<br>**(Sariaren titularitatea partekatua ez bada, ekarri lauki honetara aurreko laukian jarritako zenbateko berbera)**<br>Importe o valor del premio que corresponde individualmente al declarante<br>(Si el premio no fuese de titularidad compartida, traslade a esta casilla el mismo importe consignado en la casilla anterior) | **02** | |
| **Karga berezitik salbuetsita dagoen zenbatekoa (Txartel, kupoi edo apustuaren unitate prezioa bada 0,50 eurokoa edo handiagoa bada: [03] = zenbateko salbuetsia × [02] / [01]. Aldiz, 0,50 eurokoa baino txikiagoa bada, gehienezko zenbateko salbuetsia modu proportzionalean murriztuko da.)**<br>Cuantía exenta del gravamen especial (Si el precio unitario del boleto, cupón o apuesta es igual o superior a 0,50€: [03] = importe exento × [02] / [01]. Si es inferior a 0,50 €,la cuantía máxima exenta se reducirá de forma proporcional) | **03** | |
| **Zerga oinarria** ■ Base imponible **( [02] – [03] )** | **04** | |
| **Karga bereziaren zenbatekoa ( [04] laukia × %20)** ■ Cuota del gravamen especial (casilla [04] × 20%) | **05** | |
| **Aurretik ordaindutakoa (autolikidazio osagarria denean bakarrik bete behar da)**<br>Ingresado anteriormente (cumplimentar sólo en caso de que se trate una autoliquidación complementaria) | **06** | |
| **Sartzeko emaitza** ■ Resultado a ingresar **( [07] – [06] )** | **07** | |

### OSAGARRIA / COMPLEMENTARIA

**Autolikidazio hau bada kontzeptu, ekitaldi eta aldi beraren aurreko autolikidazio batena, adierazi lauki honetan "X" jarriz.**
Si esta autoliquidación es complementaria de otra autoliquidación anterior correspondiente al mismo concepto, ejercicio y período, indíquelo marcando con una "X" esta casilla:

**Autolikidazio osagarria**
Autoliquidación complementaria

**Autolikidazio osagarria bada, idatzi hemen aurreko autolikidazioaren identifikazio zenbakia.**
En caso de autoliquidación complementaria, consigne a continuación el número identificativo de la autoliquidación anterior:

**Aurreko aitorpenaren identifikazio zk.**
N.º identificativo de la declaración anterior

**Data** ■ Fecha

**Sinadura** ■ Firma

**Ordain gutuna** ■ Carta de pago

| **Zigilua eta sinadura** Sello y firma | **Entitatearen gakoa** Clave entidad | **Data** Fecha | **Zenbatekoa** Importe |
|---|---|---|---|
| | | | |

RE. 18/283

Ziurtagiriaren zk. Código de Verificación
PpMK-K3Ms-UEGL-7Et6
Egiaztatzeko helbidea Dirección de comprobación
https://e-s.araba.eus/wps/portal/ConsultaCove



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## 136 Eredua

**JARRAIBIDEAK**

**Nortzuek aurkeztu behar duten 136 eredua**

136 eredua aurkeztu behar dute eta, beraz, zenbait loteria etaapustutako sarien gaineko karga berezia autolikidatu eta ordaindu behar dute PFEZeko zergadunek eta establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren errentaren gaineko Zergako (EEEZ) zergadunek, beheko a) eta b) letretan aipatzen diren sariak lortzen dituztenean, salbuetsitako zenbatekoa baino sari handiagoak badira eta sari horietanez badiete atxikipenik edo konturako sarrerarik egiten. Hori guztia bat dator Jokoan lorturiko zenbait irabaziri aplika dakiekeen zerga-araubidea arautzen duen abenduaren 18ko 10/2012 Foru Dekretu Arauemailean ezarritakoarekin.

Karga berezia duten sariak

a) Estatuko Loteria eta Apustuen Erakundeak edo autonomiaerkidegoetako organo edo erakundeek antolatutako loteria etaapustuetako sariak, Espainiako Gurutze Gorriak antolatutako zozketetan irabazitako sariak eta Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalaribaimendutako jokoen modalitateetan irabazitakoak.

b) Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatubatzuetan irabazteko asmorik gabe gizarte edo laguntza lanetan ari direnerakunde publikoek edo entitateek antolatzen dituzten loteria, apustu eta zozketetako sariak, baldin eta beraien helburuak aurreko letran azaldu diren erakundeenak bezalakoak badira.

Saritutako loteria edo apustuetako dezimo, frakzio edo kupoi bakoitzeko eskatuko da karga berezia ordaintzea.

**Kobrantza data**

Saria noiz jaso den adieraziko da, formatu honetan: eguna/hila/urtea.

**Identifikazio datuak**

Aitortzailearen identifikazio datuak jarriko dira atal honetako tarte egokietan.

**Saritutako loteria edo apustua**

Saritutako loteria edo apustua antolatu duen erakunde edo entitatea

Saritutako loteria edo apustuaren erakunde edo entitate antolatzaileari buruzko datuak jarriko dira.

*Herrialdearen kodea.*

Saria zein herrialdetan lortu den adierazteko, herrialde horren kodea jarriko da.

Saritutako loteria edo apustuaren identifikazioa

Saritutako loteria edo apustuaren izena, zozketaren eguna eta unitateko prezioa jarriko dira.

**Likidazioa**

[01] laukia: *Saritutako txartel, kupoi edo apustuaren bidez lortutakosariaren zenbatekoa.*

Saritutako txartel, kupoi edo apustuaren bidez lortutako sariaren guztizko zenbatekoa jarriko da.

Gauzazko saria izanez gero, sariaren merkatuko balioa jarriko da.

[02] laukia: *Aitortzaileari sarian dagokion zatiaren zenbatekoa edo balioa.*

Titulartasun partekatuko saria bada, 01 laukian jarritako zenbatekoa titularkideen artean banatuko da, bakoitzak duen partaidetza kuotaren arabera, eta lauki honetan jarriko da aitortzaileari dagokion zenbatekoa.

Titulartasun partekatuko saria ez bada, 01 laukian jarritako zenbateko bera jarriko da lauki honetan.

[03] laukia: Karga berezitik salbuetsitako zenbatekoa.

33/2013 Foru Arauaren hemezortzigarren xedapen gehigarriak agintzen duen Karga berezitik salbuetsiko dira zenbateko osoa gehienez 40.000 eurokoa duten sariak. Edonola ere, Foru Arau

## Modelo 136

**INSTRUCCIONES**

**Obligados a presentar el modelo 136**

Estarán obligados a presentar el modelo 136, procediendo por tanto a autoliquidar e ingresar el gravamen especial sobre los premios de determinadas loterías y apuestas, los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF) y los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de No Residentes (IRNR) sin establecimiento permanente que obtengan los premios indicados en los apartados a) y b) siguientes, en cuantía superior al importe exento cuando tales premios no hubieran sido objeto de retención o ingreso a cuenta, todo ello en los términos indicados por el DNUF 14/2012 de 28 de diciembre, por el que se regula el régimen fiscal aplicable a determinadas ganancias derivadas del juego.

Premios sujetos al gravamen especial

a) Los premios de las loterías y apuestas organizadas por la Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado y por los órganos o entidades de las Comunidades Autónomas, así como de los sorteos organizados por la Cruz Roja Española y de las modalidades de juegos autorizadas a la Organización Nacional de Ciegos Españoles.

b) Los premios de las loterías, apuestas y sorteos organizados por organismos públicos o entidades que ejerzan actividades de carácter social o asistencial sin ánimo de lucro establecidos en otros Estados miembros de la Unión Europea o del Espacio Económico Europeo y que persigan objetivos idénticos a los de los organismos o entidades señalados en la letra anterior.

El gravamen especial se exigirá de forma independiente respecto de cada décimo, fracción o cupón de lotería o apuesta premiadas.

**Fecha de cobro**

Se indicará con formato día/mes/año, la fecha de percepción del premio.

**Datos identificativos**

Se consignarán los datos identificativos del declarante en los espacios correspondientes de este apartado.

**Lotería o apuesta premiada**

Organismo o entidad organizadora de la lotería o apuesta premiada:

Se consignarán los datos referentes al organismo o entidad organizadora de la lotería o apuesta de la cual deriva el premio obtenido.

*Código país:*

Se hará constar el código del país de obtención del premio según la relación de códigos de países vigente.

Identificación de la lotería o apuesta premiada:

Se hará constar la denominación, fecha de celebración y precio unitario de la lotería o apuesta premiada.

**Liquidación**

Casilla [01], *Importe del premio obtenido por el boleto, cupón o apuesta premiada.*

Se consignará el importe total del premio obtenido por el boleto, cupón o apuesta premiada.

Si el premio fuera en especie se consignará el valor de mercado de dicho premio.

Casilla [02], *Importe o valor del premio que corresponde individualmente al declarante.*

En el supuesto de que el premio fuera de titularidad compartida, el importe consignado en la casilla 01 se prorrateará entre los cotitulares en función de la cuota de participación que corresponda y se consignará en esta casilla el importe que corresponda al declarante.

Si el premio no fuese de titularidad compartida, se trasladará a esta casilla el mismo importe consignado en la casilla 01 .

Casilla [03], *Cuantía exenta del gravamen especial.*

Estarán exentos del gravamen especial establecido en la Disposición Adicional Decimoctava de la NF33/2013 de IRPF los premios cuyo importe íntegro sea inferior o igual a 40.000 euros.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

berberaren hogeitazazpigarren xedapen iragankorraz baliatuz, ezartzen da ezen loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga berezitik salbuetsitako zenbatekoa 2018. eta 2019. ekitaldietarako honela ezarrita geratuko dela:

2018ko uztailaren 5a baino lehenagoko jokoetatik datozen sariak karga berezitik salbuetsita egongo dira, PFEZaren 33/2013 Foru Arauak, 2017ko abenduaren 31ko idazkeran, bere hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 2. idatz zatian jasoriko zenbatekoan.

Zenbateko hori 10.000 euro izango da 2018ko zergaldian 2018ko uztailaren 5etik aurrera jokaturiko jokoetatik datozen sarietarako, eta 20.000 euro, 2019ko zergaldian jokaturiko jokoetatik datozen sarietarako.

Sariaren guztizko zenbatekoa salbuetsitako zenbatekoa edo gutxiago denean, saria karga berezitik salbuetsita egongo da. Sariaren guztizko zenbatekoa salbuetsitakoa baino gehiago denean,salbuetsitako zenbateko horretatik gorako zatia bakarrik zergapetuko da. Beraz, zati horren zenbatekoa jarri beharko da [03] laukian, aitortzailea sariaren %100aren titularra bada.

Loteriako dezimo, frakzio edo kupoiaren prezioa gutxienez 0,50 euro denean aplikatuko da goian xedatutakoa; eta 0,50 baino gutxiago denean, salbuetsitako gehieneko zenbatekoa modu proportzionalean murriztuko da.

Titulartasun partekatuko saria bada, salbuetsitako zenbatekoa titularkideen artean banatuko da (titularkideek 136 eredu bana aurkeztu beharko dute), bakoitzak daukan kuotaren proportzioan.

$$[03]\ \text{laukia} = \text{salbuetsitako zenbatekoa} \times \frac{[02]\ \text{laukia}}{[01]\ \text{laukia}}$$

[04] laukia: *Zerga-oinarria.*

Zenbateko salbuetsia gainditzen duen sariaren zenbatekoa izango da zerga-oinarria.

[04] laukia = [02] laukia – [03] laukia

[05] laukia: *Karga bereziaren kuota*

Zerga-oinarriari ([04] laukia) %20ko tasa aplikatuz kalkulatuko da karga bereziaren kuota osoa.

[05] laukia = [04] laukia × %20

**Aurkezteko epea**

Ez da aldian-aldiko autolikidazioa izango: saria kobratzen den egunaren osteko hilabetean aurkeztuko da.

**Data eta sinadura**

Data eta aitortzailearen sinadura jarriko dira tarte honetan.

No obstante, la Disposición Transitoria Vigésimoséptima de la citada Norma Foral establece que la cuantía exenta del gravamen especial sobre los premios de determinadas loterías y apuestas para los ejercicios 2018 y 2019 quedará determinada de la siguiente forma:

Los premios derivados de juegos celebrados con anterioridad al 5 de julio de 2018, estarán exentos del gravamen especial en la cuantía prevista en el apartado 2 de la Disposición Adicional Decimoctava de la Norma Foral 33/2013 de IRPF en su redacción vigente a 31 de diciembre de 2017.

Dicha cuantía será de 10.000 euros para los premios derivados de juegos celebrados en el período impositivo 2018 a partir del 5 de julio de 2018, y de 20.000 euros para los premios derivados de juegos celebrados en el período impositivo 2019.

Los premios cuyo importe íntegro sea superior al importe exento se someterán a tributación por la parte de los mismos que exceda de dicho importe exento , por lo que será este importe el que deba de consignarse en la casilla [03], en el caso de que el premio fuera de titularidad en un 100% del declarante.

Lo dispuesto anteriormente será de aplicación siempre que la cuantía del décimo, fracción o cupón de lotería sea al menos de 0,50 euros, si fuera inferior a 0,50 euros la cuantía máxima exenta se reducirá de forma proporcional.

Si el premio fuera de titularidad compartida, el importe exento se prorrateará entre los cotitulares (cada uno de los cuales deberá presentar el modelo 136), en función de la cuota que les corresponda.

$$\text{Casilla}\ [03] = \text{importe exento} \times \frac{\text{Casilla}\ [02]}{\text{Casilla}\ [01]}$$

Casilla [04], *Base imponible.*

La base imponible estará formada por el importe del premio que exceda de la cuantía exenta.

Casilla [04] = Casilla [02] – Casilla [03]

Casilla [05], *Cuota gravamen especial*

La cuota íntegra del gravamen especial será el resultado de aplicar a la base imponible (casilla [04]) el tipo del 20%.

Casilla [05] = Casilla [04] × 20%

**Plazo de presentación**

La autoliquidación tendrá carácter aperiódico: se presentará durante le mes siguiente al día en el que se haya producido el cobro del premio.

**Fecha y firma**

Espacio reservado para la fecha y la firma del declarante.

**LEGE OHARRA. DATUEN BABESA**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) jasotakoa betetzeko xedearekin, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko Zergadunen Fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamenduak zergak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dira.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

Erregelamendu horretan aitortzen diren datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, haien aurka egiteko eta datuak mugatzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz, Araba).

Informazio gehiago:
**http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua**

**AVISO LEGAL. PROTECCIÓN DE DATOS**

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (Reglamento General de Protección de Datos), le informamos que los datos que nos facilita van a ser incluidos en el Fichero de Contribuyentes titularidad de la Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión, inspección y recaudación de los diferentes tributos.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el citado Reglamento dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, (Plaza de la Provincia, 5, 01001 Vitoria-Gasteiz, Álava).

Para más información:
**http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado**



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2018.10.26 06:07:55 Z